

aek

Esaera zaharren

29. TXAPELKETA SOPELAN
2024KO APIRILAREN 27AN



OINARRIAK

- 01.- Txapelketa taldeka egiten da (2, 3 edo 4 kide, 16 urtetik gorakoak).
- 02.- Izena emateko azken eguna apirilaren 22a izango da, helbide honetan: <https://praktikatu.eus/esaerazaharrak/> Ordurako, **pentsatuta eduki taldearen izena**.
- 03.- Taldeek **12 € ordaindu beharko dute** izena ematean, inskripzio gisa. **Bazkarirako, 17 € pertsonako** (BEZa barne). Ordaintzeko bideak-eta goiko web-orrian daude.
- 04.- Txapelketan, izenaz gain, taldeek zenbaki bana izango dute: 1. taldea, 2.a, etab.
- 05.- Parte-hartzaileek **100 esaera zahar dute ikasteko**. Horietako bat, haatik, berria da ("esaera zahar berria"). Hori identifikatzen dutenen artean sari bat zozketatuko da; edonola ere, esaera hori besteen moduan erabiliko da txapelketan.
- 06.- Txapelketak **HIRU ATAL ditu**: eguerdian **KANPORAKETAK** (11:00etan da elkartzeko ordua, eta 11:30etik aurrera hasiko da lehiaketa), eguerdian **HERRI-BAZKARIA** (15:00etan) eta arratsaldean **FINALAK** (17:30etik aitzina +/-); lehenengoan eta hirugarrenean, bertsoei dagozkien esaerak asmatzea da gakoa.
- 07.- Horretarako, hainbana bertso entzungo dituzte taldeek, ordena jakin batean. Bertsoak behin kantatuko dira, dagokion taldeak hala eskatu ezean, eta orduan 1 minutu emango da erantzuteko, bozeramalearen bidez. Erantzun bakarra onartuko da taldeko.
- 08.- Ez dago esaerak edozein modutara esaterik: epaileak ontzat emateko, esaerak zerrenda ofizialean agertzen diren era berean (hitzez hitz, letraz letra) adierazi behar dira. Jakina, txapelketan ezin da zerrenda eskuan edo bestelako euskarrietan izan.
- 09.- Bere txandan asmatu-rik esaera bakoitzeko, 2 puntu eskuratuko ditu taldeak.
- 10.- Esaera asmatu ezean, beste taldeek erreboterako aukera izango dute (ordena aurretik adieraziko du epaileak), baina bertsoa ez da berriro kantatuko. Asmatuz gero, 1 puntu esleituko da.
- 11.- Edozein zalantza sortzen delarik, bihotz oneko zein entendimendu handiko epaile ahalguztidun-orojakileak ebatziko du.

12.- Goizean, ibilbidetan banatzen dira taldeak. Bakoitzean puntu gehien batzen duen taldea joango da **FINALERA**; arratsaldean, finalurrekoetan, bi talde sailkatuko dira finalerako; finalean puntu gehien lortzen duena izango da **IRABAZLEA**.

13.- Kanporaketetan zein finalean **HAINBANA** gertatuz gero, bertso bana (edo behar direnak) kantatuko da, harik eta berdinketa apurtu arte.

14.- Antolakuntzak eskubidea du honako oinarriak aldatzeko, beharrezko iritziz gero. Kexatzea dago, jakina.

15.- Finala gidatzeko, Epaimahaia eratu da; Antolakuntza-taldeak erabakiko du nork (eta zenbatek) osatuko du(t)en.

16.- Txapelketan parte hartzeak ezinbestean dakar oinarriok onartzea. Ez dago aurkaratzerik (inpugnatzerik), baina gogoratu 14. oinarriaren azken esaldia.

ESAERA ZAHARREN TXAPELKETAKO ANTOLAKUNTZA-TALDEA

URIBE KOSTAKO AEK

609 25 21 59 / 695 77 40 15

<https://praktikatu.eus/esaerazaharrak/>

esaera.zaharrak@aek.eus

